

PRENTSA-OHARRA

Nueva Babel konpainiak buru emango dio, asteazkenean, Antzerki Aroa zikloari *Enpresaria* taularatuta Nafarroako Antzerki Eskolan

Sarrerak NAEren webgunean eta leihatilan eros daitezke, 8 euroan

Nueva Babel antzerki-konpainiak buru emango dio, asteazkenean, euskarazko Antzerki Aroa zikloari *Enpresaria* komediarekin. Emanaldia asteazkenean izango da, 20:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan, eta sarrerak 8 euroan salgai daude –ikasle-taldeen kasuan, 5 euroan– www.laescueladeteatro.com webgunean eta Nafarroako Antzerki Eskolako leihatiletan.

Enpresaria familia osoarendako komedia bat da, Wolfgang Amadeus Mozartek sortua, Gottlieb Stephanieren libretoarekin. Berez, hau izango da euskaraz egiten den lan horren lehenengo bertsioa. Mozartek *Der Schauspieldirektor* idatzi zuen 1786an, José II.a enperadoreak hala eskatuta, zeinari bururatu baitzitzaion gai berdin bati buruzko bi antzezlan estreinatzea Schönbrunn jauregiko (Viena) kontrako bi muturretan, haren arreba Ausgburgoko María Cristinaren bisitaren kariatara. Enkarguak Mozarti eta haren ustezko aurkari Antonio Salieriri egin zizkieten.

Antzezlanak enpresari batek ikuskizun bat sortu eta estreinatzeko dituen lau egunen berri ematen digu, benetan zoratuta dauden hiru divo eta libretista baldarregi batekin ari delarik. Nola moldatuko da enpresaria? Gaizki-ulertuek, azpijokoek, kasketaldiek eta kolpe baxu ugarik koloreztatuko dute Johann Gottlieb Stephanieren libretoan oinarritutako istorio hau.

Alejandro Arandak, ekoizpen honetako eszena-zuzendariak, antzezlan 50eko hamarkadako urte xarmantetan girotzea erabaki du, non bi divoek lehiatu beharko baitute lehen postua erdiesteko lau egunen buruan eszenaratuko den jatorrizko opera baten sorrera gorabeheratsuan.

Rinaldo Zhok piano-jotzaile italiar (Trieste) ezaguna da musika-zuzendaria da, zeina nazioarteko zirkuituan aritzen baita Iruñean duen bizilekutik. Eta aktoreak honako hauek dira: Iker Bengotxea, Mikel Berraondo, Izaskun Zurutuza, Klara Mendizabal eta Lorena Ferreira. Guztiek prestakuntza eta eskarmentua dute kantu lirikoaren eta interpretazio dramatikoaren arloan. Argiztapenaren arduraduna Luis Salvatierra da.





Nueva Babel

Nueva Babel irabazi asmorik gabeko Iruñeko kultur elkartea da, 2011ko irailean sortua. Haren helburu nagusia da Nafarroan bete gabe dagoen antzerki-musikalaren generoaren nitxo artistikoa betetzeko gai diren ekoizpen eszeniko eta musikalak egitea. Antzerki musikal klasikoa, Espainiako antzerki musikal erromantikoa, garaikidea eta haiek sortutako antzerki musikala. Horra konpainiaren lan ildo nagusiak. Gaur egun *Mozart denondako* proiektua garatzen ari dira, zeinak barne hartzen baititu, besteak beste, *Txirula majikoa*, *Bahiketa harenean* eta *Enpresaria* antzezlanen gaztelaniazko eta euskarazko itzulpenak eta egokitzapen integralak. Horrez gain, Gaztambideren komediak ditu ikusgai, baita Broadwayko antzerki musikalaren erreferentziazko lanak ere.

Gaur egun 230 bazkide ditu, eta haien batez besteko adina 34 urtekoa da. 2013az geroztik, konpainiak estatuko erakundeek zein erakunde pribatuen laguntza jasotzen du, hartara urteko 60.000 euroko balioa duten proiektuak garatuta, zeinei esker 60 ikuskizun baino gehiago antzeztu baitira Espainian, Portugalen eta Frantzian.

Iruñean, 2018ko apirilaren 30ean

